



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
URRIA 2024



Jarrai gaitzazu ZizurArten:
www.zizurmayorcultura.es/eu



EGUTEGIA



ANTZERKIA



HAUR
ZINEMA



MUSIKA



HAUR
ANTZERKIA



DANTZA



ZINEMA

URRIA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

EGUNA

- 04 ANTZERKIA**
"Entrañas"
EL PATIO TEATRO
- 06 HAUR ZINEMA**
"Wonka"
- 11 MUSIKA**
BAIZERA!
- 13 HAUR ANTZERKIA**
"104. haurra"
YARLEKU
- 18 ANTZERKIA**
"Ada Byron: la tejedora de números"
LA WESTIA PRODUCCIONES
- 19 DANTZA**
"Nik.eu"
IXA
- 23 ZINEFORUMA**
"Barbie"
- 25 MUSIKA**
ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA
- 27 MUSIKA**
Lielvarde haur abesbatza (Letonia)
NAFARROAKO XXIX. NAZIOARTEKO
ABESBATZA ZIKLOA

AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ



ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN

Antolatzaileak:



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



EGIURRA, Zizur Nagusiko
Udala

Diru-laguntzaileak:

Gobierno de Navarra Nafarroako
Gobernua



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

L.G. NA-1369-2012. Doako zabalpena.



BILATU PROMOZIOAK!

ZizurArte

9€

**ANTZERKIA
BONUA**

"Entrañas "
EL PATIO TEATRO
2024/10/04



"Ada Byron: la tejedora
de números"
LA WESTIA PRODUCCIONES
2024/10/18

9€

**SENDA-
BERRI
BONUA**

"Entrañas "
EL PATIO TEATRO
2024/10/04



"Nik.Eu"
IXA
2024/10/19

12€

**URRIA
BONUA**

"Entrañas "
EL PATIO
TEATRO
2024/10/04



"Ada Byron: la tejedora
de números"
LA WESTIA PRODUCCIONES
2024/10/18



"Nik.Eu"
IXA
2024/10/19



PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE

TXARTELAK (12 eta 30 urte

bitartekoentzat): 4 euroko edo

4 eurotik gorako sarreretan

%50eko murrizketa. Ez da

aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK:

Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

**Irailaren 24tik aurrera
(asteartea), 9:00etan.**

1. TXARTELDEGIA

- Astelehenetik ostiralera
09:00 - 21:00

- Larunbatetan
10:00 - 14:00
17:00 - 21:00

- Igande eta jaiegunetan
12:00 - 14:00

- Ikuskizuna hasi baino
ordubete lehenago.

2. INTERNET

www.zizurmayorcultura.es/eu

Egiaztatu zure erosketa
eta ez ahaztu sarrera.

Gogoan izan, kosturik gabe



OINARRIZKO ARAUAK

Puntueltasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak:

Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak:

Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.

- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Ostirala

04



ANTZERKIA

7A

Entrañas

EL PATIO TEATRO

20:00

6€

45 min

FETEN
2024 SARIA
IDEIA
ORIGINAL
ONENARIMOSTRA
D'IGUALADA
2024 SARIA
ARETOKO
IKUSKIZUN
ONENARIFIRA
TITELLES
LLEIDA 2023
SARIA
ESZENOGRAFIA
ONENARISendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaje escénico berriak

Antolatzailea:



Diru-laguntzailea:



Nora doaz gure gorputzak desagertzen direnean? Zer gara? Zerez gaude eginak? Zer da gorputza?

Giza gorputzaren barnealdeari begiratuko diogu, barnean daramagun hori zer den objektu-antzerkiaren eta narrazioaren

bidez ulertzen saiatzeko. Horra anatomia-ikasgai laburrak, gizakiaren baitan gordeak dauden misterioak argitzeko.

Topaketa talde artistikoarekin, ikuskizuna bukatu ondoren

Igandea

06



HAUR ZINEMA

Gaztelaniaz

Wonka

PAUL KING

18:00

3€

112 min

Roald Dahl idazlearen "Charlie eta txokolate-lantegia" haur libururik ospetsueneko haur protagonista-rengan dago oinarriturik; inoizko libururik salduenetako bat da, gainera. Filmean, munduko asma-tzaile, mago eta txokolategilerik handienaren istorioa kontatzen da eta nola iritsi zen egun ezagutzen dugun Willy Wonka maitea izatera, ardatz harturik haren gaztaroa eta, bere lehen abenturetako batean, Oompa-Loompa pertsonaiarekin izaniko topaketa.



Ostirala

11



MUSIKA
Euskaraz

BAIZERA!

21:00
5€



Erritmoak eta dantzak gidaturik dihardu Baizera!-k musikagintzan. Iruñerriko 11 muskariz osaturiko talde handia da. Bi disko dituzte plazan, "Azkenik lehena" (2019) eta "Funka sartu" (2022), bai eta "Titereen Showa" ere, hau da,

hiru abestiz osaturiko EP bat. Azken lan horretan, Janus Lesterren lankidetzaz jaso dute. Taldea gogoz eta indarrean dabil eta, dagoeneko, berezko soinua dutela erakusten ari dira, ska eta funk musikaren kutsuarekin.

Igandea

13



HAUR ANTZERKIA
Euskaraz

104. haurra

YARLEKU

18:00

4€

55 min

Adin

gomendatua:

6 urtetik gora

104. haurra umezurztegi batean dago, adoptatzeko irrikitan. Egoera berean dauden beste neska batzuek bezala, lan gogor-gogorra eginez ematen ditu egunak, jantziak egiten eta josten, esaten dietenez horixe baita bidea adopzio-familia bat lortzeko. Behin batean, ordea, neska berri bat iritsiko da eta zalantzan jarriko du hori dena; hortik aurrera, jolasaren eta irudimenaren bitartez, neskak



matxinatu eginen dira haietaz espero den hartara nahitaez egokitu behar izatearen aurka. Familia-antzerkia lantzen duen ikuskizun honetan, aktoreen lana objektu-antzerkiarekin eta txotxongiloekin nahasten da.

Ostirala

18



ANTZERKIA

**Ada Byron: la tejedora de números**

LA WESTIA PRODUCCIONES

20:00

6€

100 min



ipar
eszena
bidea

e

camino
escena
norte

JOVELLANOS
2023
SARIA LAN
ESZENIKO
ONENARI



Ada ohean dago oso gaixo eta bere eldarnioan aita ikusten du hilik (Lord Byron), eta bere bizitzaren gaineko errepassoa egiten du aitarekin batera. Bizitzari buruz egindako azterketa lagungarria da aita-alabak elkar hobeki ezagutzeko. Are gehiago, ezusteak eta kargu hartzeak sortzen dira eta, ondorioz, Adak bere izateaz duen ikuskera aldatuko du. Hori dela eta, erabaki harrigarria hartuko du.

Ada Lovelace matematikaria historiako lehen programatzailetzat jotzen da eta, askoren esanetan, egungo informatikaren ama da. Emakume ameslari eta bere garairako aurreratu hura, XIX. mendearen lehen erdian bizi izan zen. Bada, urteetan ahantziak izan diren haren ikerlanak erabakigarriak izan dira egungo bizitzaren alderdi guztiak hartuak dituen zeharkako diziplinaren –informatikaren– agerpenaren.

Larunbata

19



DANTZA



NIK.EU

iXa

20:00

6€

50 min

Aztera begirada bat oroitzapenei eta bizipenei, bizi izandakoari, ni-rik intimoena besaulki-patitotik begira daudenen ni-rik intimoekin uztartu nahian. *NIK*, ni euskaraz jabetzearen ekintzan eta *EU*, ni galegoz, kutsu autobiografikoa duen lan baten izenburuarekin uztartzen dira, non ikuspuntu dibertigarri, zirraragarri eta intimotik bizitako emozioak eta errealitateak islatuko diren. Maskulinitatea gizabanakoak bere burua deseraikitzen duen leku bat da, gizarte-egitura heteropatriarkalak haurzarotik heldutasunera arte gizakiaren hazkunderan nola eragiten duen hausnartzera gonbidatzeko.

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisajes escénicos berriak

Antolatzailea:



Diru-laguntzailea:



Asteazkena

23



ZINEFORUMA

Barbie

GRETA GERWIG

19:00

2€

114 min

Ondoren solasaldia Maria Castejónekin. Historialaria, irakaslea, zineman aditua eta idazlea.



Antolatzaileak:



Barbiek bizitza zoragarria darama Barbielanden, musikaz eta kolorez betetako jai distiratsuekin. Egun guztiak dira egunik onena. Harik eta bere buruari galderak egiten hasten den arte, haietako batzuk aski deserosoak, eta galderak ez

datoz bat bizi den mundu idiliko horrekin. Takoiak lurrean bermatzeko gauza dela ohartzen denean, zapata apalak jantzi eta egiatzko mundura joateko bideari helduko dio.

Ostirala

25



MUSIKA

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA
BANDA20:00
2€

Igandea

27



MUSIKA

Lielvarde haur abesbatza (Letonia)

NAFARROAKO XXIX. NAZIOARTEKO ABESBATZA ZIKLOA

12:30
4€

Lielvarde haur abesbatza 1990ean sortu zen, Lielvarde Musika Eskolarekin batera. Eskolako heziketa-programa guztietako ikasleek osatua dago. Ibilbidean, sariak eskuratu ditu

Letoniako jaialdi nagusietan, baina baita nazioartekoetan ere. Abesbatzak kontzertu asko ematen ditu, bai Letonian, bai Europako gainerako herrialdeetan.